

Jurdana Uriarte Lejarragak, Bermeoko Udaleko idazkari nagusiak, ziurtatzen dot, 2021-05-11(e)(a)n, TOKIKO GOBERNU BATZARRAK erabagi hau hartu dauela:

4.- GIDABAIMENA EUSKARAZ PRESTATU ETA ATERATZEKO BERMEOKO BIZTANLEENTZAKO 2021. URTERAKO DIRU LAGUNTZEN DEIALDIA ONARTZEA ETA ZABALTZEA.

Xedea

Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2021. urterako diru laguntzen deialdia onartzea eta zabaltzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: 2020ko apirilaren 24an, udal Osoko Bilkurak, Diru laguntzen Plan Estrategikoa eta Diru laguntzen Berariazko Oinarriak onartzea erabaki zuen. Erabaki horren iragarkia 2020ko uztailaren 8an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Berariazko Oinarri horien artean, Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako diru laguntzenak onartu ziren.

Bigarrena: 2020ko irailaren 25ean, udal Osoko Bilkurak, zenbait berariazko oinarri aldatzea onartu zuen eta, euren artean, Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako diru laguntzenak. Erabaki horren iragarkia 2020ko urriaren 26ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hirugarrena: 2021eko maiatzaren 5ean Euskera teknikariak erabaki proposamena egin du.

Argudioak

Lehenengoa: Diru Laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikulua eta erlazionatutakoak.

Bigarrena: Diru laguntzen deialdiak onartzeko eta zabaltzeko ahalmena Alkatetzarena da, baina 2021eko martxoaren 11ko 2021/702 Alkatetza dekretu bidez Tokiko Gobernu Batzarrean delegatu zen.

Erabakia



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:
07E50006A86D00N9K1K7M8A1P3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 13/05/2021
ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 13/05/2021
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/05/2021
13:06:02

EXPEDIENTE ::
2021IDA_ERA_0101
Data: 04/05/2021
Lekua: Bermeon
Erregistro unitadea:
Erregistro nagusia



Tokiko Gobernu Batzarrak bozketa nominatiboari ekin dio eta aho batez erabaki du:


LEHENENGOA: Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2021. urterako diru laguntzen deialdia eta eskaera-orria onartzea eta zabaltzea, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2020ko uztailaren 8an eta 2020ko urriaren 26an argitaratutako oinarrien arabera.

BIGARRENA: Deialdi honen publizitatea BDNS datu basean argitaratzea.

HIRUGARRENA: Bermeoko Udalaren web gunean deialdi honen publizitatea argitaratzea.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, ziurtagiri hau idazten dot, erabagia agertzen dan akta behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota (Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDaren 206. artikulua arabera), Aritz Abaroa Cantuariense alkatearen aginduz eta oneretxiaz.

Orrri-oinean sinatzailea eta data



Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E50006A86D00N9K1K7M8A1P3

Sinadurea eta data

JURDANA URIARTE LEJARRAGA-IDAZKARI NAGUSIA - 13/05/2021
 ARITZ ABAROA CANTUARIENSE-BERMEOKO ALKATEA - 13/05/2021
 CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 13/05/2021
 13:06:02

EXPEDIENTE ::
 2021IDA_ERA_0101

Fecha: 04/05/2021

Lekua: Bermeon

Erregistro unidatea:
 Erregistro nagusia

